



IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

Ikastetxearen izena:

CEIP ALLENDE SALAZAR HLHI

Ikastetxearen kodea:

014308

Data:

2023(e)ko ekainaren 1(a)





1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Allende Salazar eskola publikoa Urdaibaiko Biosfera Erreserban dagoen Gernika-Lumo udalerrian dago. Gernika-Lumoko ikastetxe publiko bakarra da eta "D" ereduko hiru lerro ditu.

Allende Salazar ikastetxean Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 22-23 ikasturtean 774 ikasle, 78 irakasle, 6 Hezitzaile Laguntzarako espezialistak, Ikastetxeko komunitatea osatzen dugun guztiok ilusioz ekiten diogu heztea bezalako zeregin zailari. Konbentziturik gaude heztea irakastea baino gehiago dela, horregatik uste dugu ikasleak direla hezkuntza-sistemaren giltzarria; guretzat funtsezkoa da haien ongizate emozionala eta zaintza, arrakasta bermatu behar dugu dena inklusibitatean. Gure begiek ikasleen irteera-profilean kokatuta daude; etorkizuneko erronkei maila pertsonalean, sozialean eta profesionalean aurre egiteari begira.

Gure eskolan Amara Berri Irakaskuntza Sistema aurrera daramagu.

Guk dugun ikaslearen kontzepzioa gure lanerako ardatza da:

Ikasle bakoitza izaki globala da, beraz bere garapenaren esparru guztiak interesatzen zaizkigu: nortasuna, harreman sozialak eta arloekin lotutako ikasketak. Gure xedea umearen garapen armoniko eta globala da; ikasle guztiek Oinarrizko Hezkuntza amaitzean, guk gure esparruan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erdietsi behar duten konpetentzien garapen-maila, zeintzuk gure ikasleei aukera emango dien haien bizitza-proiektua arrakastaz garatzeko eta bizitzan zehar funtsezko konpetentzien garapenean aurrera egiten jarraitzeko.

Ikasle bakoitza norberaren kontzeptu eskema eta emozio-egoeratik abiatzen da eta bere ahalmena du.

Printzipio metodologikoak ikaslearen kontzepzioarekin guztiz lotuta daude eta hauek gure eguneroko eginbeharra bideratzen dute:

INDIBIDUALIZAZIOA: Eskolak, ikasle bakoitzak dituen ahalmena eta egoera kontuan harturik, bere mailan eta erritmoan lan egiteko aukera emango dion programa ahalbideratu behar du.

SOZIALIZAZIOA: Elkarreraginak aurrera jotzen eta gure eskemok aldatzen laguntzen digu; honengatik, guk proposatzen ditugun aktibitateak kontestu sozialak dira.

AKTBITATEA: "Ikasleak bere kasa egin dezakeena, ez dezala irakasleak egin". Gure helburua ikasle gogotsuak, aurrea hartzen dutenak, jakin-mina dutenak lortzea da.

SORMENA: gizaki orok duen gaitasuna da. Ereku guztietan sustatzen dugu, pertsona bakoitzak

barruan daramana kanporatu eta bere berezitasunaz jabetzeko aukera izan dezan.

ASKATASUNA: Besteen eskubidea errespetatuz, bakoitzak pentsatzeko, adierazteko, eta aukeratzeko duen eskubidea da. Muga bakarra besteen eskubidea da, honi" muga soziala" deitzen diogu.

Curriculumaren bitartez aurreko ideiak eguneroko praktikan gauzatzen dira. Ikasleari buruz dugun ikuskerak, dena antolatzeko, programatzeko, esku hartzeko eta jarraipena egiteko era zehatz batera eramaten baita.

Ikastetxeko departamentuetako antolaketa bera ere eskuharmenerako oinarrirako estrategia da guretzat.

Osagarri eta egonkorak diren kontestu sozialen bidez programatzen dugu, hots, ikuspuntu multidisziplinarran arloak elkar batzen diren bizi ekintzen bidez. Aktibitate hauei kontestu sozial, egonkor eta osagarriak deitzen diegu. Sozialak, umeen arteko harremanak sustatzen dituztelako; egonkorak, ziklo osoan mantentzen direlako; osagarriak, aktibitateen baturak curriculumara osatzen duelako.

Aktibitate guztiek beraien baitan edo ematen zaien irteeretan zertarakoa edo helburua dute.

Lanak irteera desberdinak izan ditzake, gela barruan besteen aurrean aurkeztu,... edo eskola irrati bitartez emititu edo eskolako hedabideetan (Zirt-Zart, Lumope, ...) argitaratu.

- Ziklo programen bitartez eta adin nahasketarekin lana egiten dugu.
- Irakasle desberdinek lan egiten dute ikasle talde bakoitzarekin.
- Ikasleak aktibitate bakoitzaren lan metodoa idatzia du. Ikasleek lana burutu ahal izateko, lan metodoan adierazten diren urratsak jarraitu behar dituzte.

PROZESUAN INPLIKATZEN DITUGU

- Lan metodoa. Aktibitatea aurrera eraman modu autonomoan, jardueran zentratzeko eta ekintzen planifikazioan trebatzeko.
- Zertarakoa eta proiektio soziala. Interesa eta motibazioa areagotu eta ondo egiteko nahia suspertu aktibitateari esangura eta funtzionaltasuna emanaz.
- Kritika. Aurreratzeko baliabidea: auto-balorazioa egin eta besteena jaso, ikuspegi eta iritzi ezberdinak onartuz. Jasotakoa gehiago ikasteko eta denon hobekuntzarako erabili, lorpenak eta aurrerapenak dakarten poza elkarrekin disfrutatuz.
- Ebaluazioan inplikatu. Ebaluazioa etengabea eta hezitzailea da. Halaber, ebaluazioa integratzailea, kolaboratiboa eta parte hartzekoa da. Hori dela eta, eskolak eta irakasle-taldeak estrategia egokiak bermatu behar dituzte, ikasleak eta familiak ebaluazioari lotutako prozesuetan integra daitezen eta horietan aktiboki kolaboratu eta parte hartu dezaten.
- Ikasleen antolamendua. Ikastetxearen antolamenduan parte hartu: eskolako egoerak eta arazoak aztertu eta irtenbideak bilatu eta eguneroko bizitzan sortzen diren beharrei erantzuna ematen saiatu.
- Mediateka da informazioaren iturburua: testuliburua ez da oinarrizko baliabidea.

- Hedabideen bidetik egindako lanek aurkituko dute bere zabalkundea eta oihartzuna: Zirt-Zart aldizkaria, Lumopetik (hiru-hilabeteko argitaratzen den aldizkaria), irratia.

Gure prozesu hau guztia martxan jartzeko gure eskolan derrigorrezkoa ikusten dugu oinarriko trebetasun teknologikoak garatzea eta horien funtzionamenduari eta erabilerari buruzko gogoeta etikoan aurrera egitea.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Allende Salazarrek urteetan egin du izugarriko ahalegina baliabide digitalak berritzen eta hornitzen. Gailu kopuru handiena Hezkuntza departamenduak hornitu du; baina eskolak ere ikasleen beharrezana ikusi zuenean bere fondoetatik diru partida bat ikasleentzat minieramangarri homologatuak erosteko erabili zuen.

Orain arte ikusi diren ikasleen beharrezan kontuan hartuta hornikuntza 3. ziklotik beherantz joan da.

3. zikloko gela guztiek ikasle bakoitzarentzat minieramangarri batekin hornituta daude eta klase bakoitzean ordenagailuak gordetzeko armairu berezi bat dago.

3. zikloko irakasleek gelako ordenagailutik aparte bakoitzak eramangarri bat dauka nahi izanez gero lanak eskolatik at prestatzeko.

Momentu honetan 2. zikloko gela guztiak batz best 14 minieramangarriekin hornituta daude. Gela guztietan minieramangarriak gordetzeko armairu bereziak daude; 2023ko apirilean Hezkuntza Sailak hornitutako armairuak.

LHko gela guztietan arbel digitalak daude eta gutxienez honi lotuta ordenagailu bat (mahai gainekoa edo-eta portatila). Hezkuntza Sailetik, 2022ko otsailaren 21ean jasotako jakinarazpenean lehen hezkuntzako 1-2-3 mailetan pantaila interaktiboen hornidura egingo zela adierazten zen. Hornikuntza horretatik 8 pantaila interaktibo 2. zikloko geletan jarri dira eta beste 4 pantaila interaktibo 1. zikloko beste 4 geletan; 2. Zikloko eta 1. Zikloko gela guztietan tablet itxurako arbel interaktiboak daude.

Zirkular berean jartzen duen moduan 4-5-6 mailerako beste horniketa bat egingo da; hauek 3. Zikloko geletan jarriko dira. 4 geletan daude Multiclass arbel interaktiboak eta beste 4 geletan arbel digital arruntak.

HH 4-5 urte zikloan sapaetik eskegitako proiektoreak daude- tela batean proiektatzen da. Gela guztietan ordenagailu bat (mahai gainekoa edo portatila).

HH 2-3 urte zikloan sapaiko proiektore bakarra daukate pasilloan eta oihal batean proiektatzen da..

Iparraldeko eraikinean eta erdiko eraikinean Wifi estaldura ona dela ezan dezakegu; hego aldeko eraikinean ordea gure ustez estaldura eskasa. CAU- tik ikerketa egiten ari dira gabezia hori konpontzeko asmoz.

Eskolan guztira 20 WIFI errepetidore ditugu eskolako eraikin desberdinetatik kokatuta. Instalazio hau 20-21 ikasturtean berritu zen. Hortaz aparte internet puntuak gela guztietan daude.

Une honetan ditugun gailu kopuru hauxe da. Hauek dira orain arte gela eta gune bakoitzean egon den tresneria kopurua.

LH

3. zikloa	Arbel digitala:	Ikasle mini portatil:	Irakasleentzat portatil	Gelako ordenagailua	IPAD
A GELA- I123	Arbel digit 1	24	1	1	
B GELA- I126	Arbel digit 1	23	1	1	7
C GELA- I118	1	25	1	1	
D GELA- I117	1	24	1	1	
E GELA- I124	1	25	1	1	7
F GELA- I112	Arbel digit 1	24	1	1	6
G GELA- I125	1	24	1	1	
H GELA- I111	Arbel digit 1	24	1	1	
IRAKASLE GELA				1	

LH

2. zikloa	Arbel digitala:	Ikasle mini portatil:	Irakasleentzat portatil	Gelako ordenagailua	IPAD
A GELA- I004	1	18		1	
B GELA- I013	1	13		1	
C GELA- I001	1	14		1	
D GELA- I010	1	15		1	
E GELA- I011	1	13		1	
F GELA- I012	1	14		1	
G GELA- I003	1	14		1	
H GELA- I002	1	13		1	
IRAKASLE GELA				1	

LH

1. zikloa	Arbel	Ikasle	Irakasleentzat	Gelako	IPAD
-----------	-------	--------	----------------	--------	------

	digitala:	mini portatil:	portatil	ordenagailua	
A GELA- H116	1	1		1	
B GELA- H119	1	1		1	8
C GELA- H117	1	1		1	
D GELA- H118	1	1		1	
E GELA- H129	1	1		1	8
F GELA- H120	1	1		1	
G GELA- H128	1	1		2	
H GELA- H130	1	1		1	
IRAKASLE GELA				2	
HH					
4- 5 urte	Arbel	Ikasle	Irakasleentzat	Gelako	IPAD
	digitala:	mini portatil:	portatil	ordenagailua	
A - H110 4- ur		1			
B - H109 4- ur		1			
C - H108 4- ur		1			
D - H107 4- ur		1			
A - H111 5- ur	Sapai proiekt	1		1	
B - H112 5- ur	Sapai proiekt	1		1	
C - H113 5- ur	Sapai proiekt	1		1	
D - H117 5- ur	Sapai proiekt	1		1	
IRAKASLE GELA-Arbel digit	1			2	
HH					
2- 3 urte	Arbel	Ikasle	Irakasleentzat	Gelako	IPAD
	digitala:	mini portatil:	portatil	ordenagailua	
IRAKASLE GELA-Sapai proiekt	1			2	
GELA					
KOMUNAK	Arbel	Ikasle	Irakasleentzat	Gelako	IPAD
	digitala:	mini portatil:	portatil	ordenagailua	
MUSIK GELA- I116	1			1	

INFORMAT GELA	1	23		1
KAFE MAKINA				1
ENGLISH- I107	1	6	1	1
ENGLISH- I108	1	4	1	1
ENGLISH- I109	1	8	1	
HIPI- I105				2

Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Allende Salazar ikastetxeak urteak daramatza proiektu digitaletan parte hartzen: B10 Berritzegunean urtero IKT lantaldean parte hartzen, Sare Hezkuntza, Amara Berri Sistemako Hedabideak lantaldean.

Kurtso hasierako ebazpenean (2022-2023 IKASTURTEAREN ANTOLAKETA HAUR HEZKUNTZAKO ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASTETXE PUBLIKOETAN-Hezkuntza sailburuordearen ebazpena) adierazten moduan Ikasturte hau-22-23- planifikatzeko lehentasunezko esparruei dagokienez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

Curriculum berria eta haren garapena eta **digitalizazioa**

Berrikuntza bizikidetzaren arloan eta aniztasunaren kudeaketa, zaintza emozionala barne.

Euskara, Eleaniztasuna eta Kulturartekotasuna.

Lidergo pedagogikoa, zuzendaritza-taldea.

Oinarrizko irakaskuntzako hezkuntza-etapetarako curriculumak garatzeko Dekretu berri (momentuz zirriborroa baina aplikatzen ari da) honetan aurreikusitako konpetentzia espezifikokoak eta helburuak lortzea irteera-profila osatzen duten funtsezko konpetentziak eskuratzearekin eta garatzearekin lotuta dago. Ez dago hierarkiarik funtsezko eskumen horien artean, eta ezin da elkarrekotasun eksklusiborik ezarri arlo, eremu edo gai bakar batekin. Horietako bakoitza eskuratzeak beste guztiak eskuratzen laguntzen du, eta arlo, eremu edo zenbait ikasgaien bidez eskuratzen diren ikaskuntzek hainbat konpetentzia garatzen dituzte. Zeharkakotasuna irteera-profilaren berezko baldintza da, ikaskuntza guztiek hori lortzen laguntzen baitute. Hauek dira konpetentzia horiek:

? Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia.

? Konpetentzia eleaniztuna.

? Matematikarako konpetentzia eta zientzia, teknologia eta ingeniartzarako konpetentzia.

? **Konpetentzia digitala.**

? Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoa.

? Herritartasunerako konpetentzia.

? Ekintzailtza-konpetentzia.

? Kontzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentzia.

Konpetentzia digitalak ikaskuntzarako, lanerako eta gizartean parte hartzeko teknologia digitalen erabilera kritikoa, segurua, osasungarria, iraunkorra, sortzailea eta arduratsua eskatzen du, bai eta teknologia horien bidez pertsonekin edo gailuekin elkarreragitea ere.

Konpetentzia digitalaren barruan sartzen dira informazioaren eta datuen alfabetizazioa, komunikazio eraginkorra eta hainbat kanal eta inguruneren bidezko lankidetzak, hainbat hizkuntzaren erabilerari buruzko alfabetatze mediatikoa, askotariko eduki digitalen sorrera (programazioa barne), segurtasuna (ongizate digitala barne) eta herritartasun digitalarekin, pribatutasunarekin, jabetza intelektualarekin, arazoaren ebazpenarekin, pentsamendu konputazionalarekin eta kritikoarekin lotutako gaitasunak.

Teknologia digitalek hezkuntzaren arlo guztietan dute eragina eta beharizan eta aukera berriak sortzen dituzte. Hori horrela, hezkuntza-erakundeetan teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetze aldera, Hezkuntza sailak 2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana onartu du.

Digitalizazio Plan honen baitan, ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala sustatuko da. Hainbat ekintza bultzatuko dira honako arloetara bideratuta: material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera.

Horrekin batera, 2022. urtean argitaratu da Irakasleen Konpetentzia Digitalari dagokion marko berria; lanketa eta formazioa egingo da ikasturtean zehar eta, horri jarraiki, lanean diharduten irakasleen %80k marko honekiko duen konpetentzia akreditatzea da helburua.

2022-2023ko ikasturterako, digitalizazioari dagokionez, ikastetxeek honako erronkak izango dituzte:

- ? Ikastetxe guztiek Proiektu Digitala izatea. (Digigunea)
- ? Irakasleen batez besteko trebakuntza digitala akreditatu ahal izatea.

Berritzegune Nagusiak formazio-eskaintza bateratua eskaintzen ari da, ikastetxeetako klaustroen bidez bideratzen ari da. Curriculuma ardatz duen formazio beraren bidez irakasleek, oinarrizko konpetentzia digitala akreditatu ahal izango dute.

22-23 ikasturte honetan Allendeko irakasle denak "Curriculum eta konpetentzia digitala A2-ibilbidea" ikastaroan murgilduta gaude, moodlegunean Berrikuntza Pedagogikoak antolatutako 3 moduloko ikastaroa. Formakuntza honi aurre egiteko saio batzuk egokitu dira bai bakarka lan egiteko edo-eta taldean lan egiteko.

Informazioaren gizartean bizi gara. Izan ere, komunikatzeko eta harremanetan jartzeko moduak

aldatu egin dira azken hamar urte hauetan. Ondorioz, gizartean emandako aldaketa guztiak, eskoletan eragina izan dute, eta 'Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKTen)' bitartez, txikitatit teknologia berriak maneiatzen erakusten dizkiete irakasleek.

Gizarte digitalizatu batean bizi garen heinean, eskolak gizarteari erantzun behar dio eta horrekin batera ezinbestekoa da konpetentzia digitalaren garapena eskolan ere bideratzea. Allende Salazar Amara Berri sistemaren barruan dago; Amara Berri Sistema pedagogikoa aurrera eramaten dugu, eta eredu honetan konpetentzia digitalari ere behar duen lekua eskaintzen zaio, eskolak duen lan egiteko eredu propioaren baitan (irakasle zein ikasle).

Allenden beti eman zio garrantzia IKT-ei; lehen hezkuntzako zikloetan eduki batzuk ordenagailuen bidez landu egiten dira eta aipatzekoa da 22-23 ikasturtean 3. Zikloan eta 2. Zikloan konkretuki astean saio bat informatikarako daukatela.

23-24 ikasturtean konpetentzia digitala arlo desberdinak garatzen diren heinean lantzea espero da.

Kursto hasierako ebazpenak esaten duen moduan ikastetxe guztiek Ikastetxearen Proiektu Digitala egingo dute 2023ko ekainaren 16rako eta Hezigunera igoko da.

Gure ikastetxeko egoera aztertzeko Europako Batzordeak garatutako Ikastetxearen autoebaluazio-txostenean- SELFIE- parte hartu hartu zuen.

SELFIE ikastetxeko txostenak konparatzen eta biltzen ditu ikasleen, irakasleen eta zuzendaritza-taldearen iritziak. irakaskuntza- ikaskuntzarako teknologia digitalak erabiltzeko estrategiak eta praktikak erakutsiz.

Hiru profil mota aurkeztu genituen:

- ✓ Zuzendaritza.
- ✓ Irakasleak.
- ✓ Ikasleak- 3. Zikloko ikasleak egiten dute.

European Commission-ek txostena bidali zigun eta azertu ondoren Ikastetxeko Proiektu Digitala bideratzea erabaki zen.

Proiektu digital hau kurtso hasierako ebazpenean jartzen duen moduan:

“Ikastetxearen Proiektu Digitala IHParekin eta ICParekin lerrokatua egongo da.

Proiektu Digitala 2023ko ekainaren 16rako egin eta Hezigunera igoko da. Ikuskaritzak ziurtatuko du proiektua eperako egina dagoela eta Berritzegune Nagusitik aztertuko da edukia, proiektuok balidatze aldera”.

IPD- Ikastetxearen Proiektu Digitala- a egiteko Digitalizazio Batzorde bat osatuko da, IPDaren egite prozesua dinamizatzeko eta koordinatzeko eta eguneratua mantentzeko. Horretarako, ikastetxeek hainbat tresna eta laguntza izango dute eskura: gida, on-line laguntza, Mentoreen Sarearen aholkularitza.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Proiektu hau bideratzeko **Digitalizazio Batzordea** sortu da:

- HH: Ziortza Elorrieta
- 1. ZIKLOA: Gorka Madariaga
- 2. ZIKLOA: Irati Apraiz
- 3. ZIKLOA: Mari Karmen Aurtenetxea
- BeA: Bego Zaldunbide- Roberto Musatadi
- Zuzendaritza: Ana Bilbao

Digitalizazio Batzordeak izango dituen eginkizunak:

- ? European Commission-ek Ikastetxeko selfie txostena aztertzea eta digiplana elaboratzea eta aurrera eramatea.
 - ✓ Eskolan dauden indarguneak ahuleziak aztertu.
 - ✓ Beteko diren helburuak zehaztu.
 - ✓ Digitalizazio prozesuak garatzeko burutuko diren ekintzak zehaztu.
 - ✓ Ikastetxeetako irakasleen profila zehaztu , egon daitezkeen gabeziak identifikatu eta dagokien formakuntza eskaini.
 - ✓ Ikastetxeko ikasleen ikt irteera profila zehaztu eta hori lortzeko bideak eman.
- ? Klaustroari aurkeztea eta honek onartzea.
- ? 23-24 ikastuteko hezkuntza proiektuan eta urteko planean txertatzea.
- ? Planean klaustroaren inplikazioa bultzatzea.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Digiplana 23-24 ikasturteko IUP-ean txertatuko da.

Allendeko 22-23 ikasturteko IUP-eko 2. helburuak Ikastetxeko digitalizazio planaren diseinua bukatzea eta burutzea planteatzen du; horretarako ziklo desberdinetan hainbat jarduera planteatzen dira.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

SELFIE- a egiteko hiru profil mota aurkeztu genituen:

- ✓ Zuzendaritza.
- ✓ Irakasleak.
- ✓ Ikasleak- 3. Zikloko ikasleak egiten dute.

Galdetegiaren osatze-indizeak

Autohausnarketa-ariketa honetan, ikasleen, irakasleen eta zuzendaritza-taldeko kideen parte-hartzea honako hau izan da:

ZUZENDARITZA TALDEKO KIDEAK	%100
IRAKASLEAK	% 93
IKASLEAK	% 93

AMIA analisisa

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)

- Digitalizazio inguruan formakuntzarako irakasleen denbora falta.
- Irakasle batzuek IKTen aurrean beldurra.
- Orokorrean Datuen babesa bermatzea.
- 1 Zikloan WIFI konexio ahula.
- Familiekin komunikazio orokorra - Web orrialdearen eguneratze falta
- IKTen arduradun falta.
- Irakasleon erresistentzia aldaketen aurrean.
- Ikastetxeko ordenagailuak- miniportatil, portatil, mahai gainekoak- era egokian erabiltzeko protokoloaren falta.
- Ebaluazioa egiteko euskarri digitalen gabezia.
- Ikasleek eskolako gailuak erabiltzeko momentuan duten arduragabekeria.

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

- Plantilla egonkorarren falta. Urtero heldutasun teknologikoari aurre egin beharra.
- Orokorrean IKTei dedikatzen denbora falta.
- Baliabide digitalak ematen duten aukerak ez aprobetxatzea.

Faktore positiboak

Indarguneak (barne-faktoreak)

- Amara berri Sistema. IKT errotuta ditugu txokoetan.
- Irakasleen etengabeko prestakuntzetan hartzeko prestatasuna. Elkarlana.
- Goiko zikloetan azpiegiturak eta ekipoak (ekipoak, Internet konexioa, WiFi,) hornidura ona.
- 3. Zikloko tutoreek etxean lan egiteko bakoitzaren portatila.
- Orokorrean IKT-ak erabiltzeko ikasleen motibazioa.
- Eskolako dominioak ematen dituen aukerak (Google Workspace).
- Familiekin – irakasleekin- komunikazioa TokApp School bideratzeko sistema ona.

Aukerak (kanpo-faktoreak)

- Amara Berri sistema. Lanak Hedabideetara.- Hedabideetan IKTen erabilera- Irratia- Txiki Web- Prentsa- telebista.
- Mintegi... esperientzien trukaketa. Sareak sortu.
- Orokorrean familia gehienek etxean ekipoak dituzte.
- AMPA-ren prestatasuna ekintzak aurrera eramateko.
- Baliabide digitalek ematen dizkiguten aukerak aprobetxatzea.

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

- Amara Berri Sistemak umeen lanak kanporatzeko eskaintzen dizkigun aukera guztiak martxan jartzea.
- Amara Berri sistemako ikastetxeekin dugun harreman sendoa aprobetxatu ikastetxe horiekin esperientziak, proiektuak... partekatzeko.
- Inguruko eskolekin (Gernikakdeko eskolak) dugun harremana aprobetxatu ikastetxe horiekin esperientziak, materialak, proiektuak... partekatzeko.
- Irakasleak elkarlanean aritzeko ohiturak mantenduz haien arteko esperientzia digitala partekatzea: behar izanzen arabera barneko formakuntzak antolatu.
- Allenden 2. Zikloan eta 3. Zikloan dugun infraestruturaz aprobetxatuz kompetentzia digitala sendotzea.

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobetxatzeko

- Irakasleek formakuntzarako duten denbora falta era eraginkor batean kudeatzea
- Baliabide digitalak ematen dizkiguten aukeran aprobetxatuz datuen babesa bermatzeko irizpide batzuk idatziko dira eta hauek irakasle guztiekin komentatuko dira.
- Eskola eta familien arteko komunikazioa sendotzeko familiei Tock-App School mugikorretan instalatzen lagunduko da.
- Ikasleek eskolako gailuak arduraz erabiltzeko sentsibilizazio eta kontzientziazio momentuak tutoretza orduetan planteatuko dira; era berean araudi bat idatziko da gailuak era desegokian erabili ezker izango duten ondorioak zehazteko. Araudi hori kurtso hasieran zabalduko da eta urtean zehar tutoretza orduetan ere landuko da.

Indarguneak optimizatu mehatxuak indargabetzeko

- Eskolan ditugun baliabide eta azpiegitura digitalen erabilera indartu Konpetentzia digitala irakasgai guztietan txertatuz.
- Eskolako dominioak ematen duen aukera guztia aprobetxatzeko eta berak eskaintzen duen baliabide digitalak aprobetxatzeko eskolako ikasle zein irakasleei dominioko korreo bat- eta pasahitza sortuko zaie. Email hori izango da eskolan eskaintzen diren baliabide askoren giltza. Prozesu honek

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

- Digitalizazio mailan suertatzen diren arazoak konpontzeko eta digitalizazioa aurrera eramateko ziklo desberdinetako irakasleekin osatutako Digitalizazio batzorde bat osatzea. Batzartzeko

eskolako orduetan aukera izatea.

- Sareko konexioa edo/eta Wifia ahula den tokietarako ikerketa egitea eta CAU-arekin harremanetan jartzea estaldura bermatzeko.



3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

LG Lidergoa eta gobernantza

Helburua		
IPD ikastetxeko proiektu digitala idaztea eta 23-24 ikasturtean inplementatzea.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.2 Ikaskuntza digitalerako teknologien alde onak komunikatzen dira	23/24	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.2 A1 Proiektu digitala hezkuntza komunitate osoak onartu du (irakasle-taldeak, eskola-kontseilua	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IPD-a idatzi	Selfie/ hausnarketa	Zuzendaritza taldea Digitalizazio batzordea	2023/05/31	Egina
IPD-a klustroan aurkeztu, eztabaidatu eta onartu.	Klaustroa- akta IPD	Zuzendaritza taldea Digitalizazio batzordea	2023/05/31	Egina

Helburua		
IPDa 23-24 ikasturteko IUP-ean txertatzea.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2023/10/31	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.3 A1 Ikastetxeak bere oinarriko dokumentazioan (Urteko Plana, IHP, ...) sartzen ditu irakasle-tald	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IPD 23-24 ikasturteko IUP-ean txertatu	IPD/ IUP	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua

Helburua		
Digitalizazioa bultzatzeko 23-24 ikasturtean talde gidari bat sortzea.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.3 Plan estrategikoan jasota dago aro digitaleko ikaskuntza	2023/10/31	
Adierazlea	Mota	Helmuga

LG 1.3 A3 Ikastetxeak batzorde bat eta koordinatzaile bat ditu estrategia digitala garatzeko, eta haren f	Bai/Ez	BAI
---	--------	-----

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen artean eta ziklo bakoitzetik gutxienez bat Digitalizaziorako talde gidari bat sortu.	Ordu kredituak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua
Talde gidarian arduradun bat izendatu.	Ordu kredituak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua

Helburua
Eskolan suertatzen diren matxurak, intzidentziak... Ebaluazioa diagnostikorako ardurak hartzeko... Digitalizazio planerako... kudeatzeko IKT figura finkatzea.

Deskriptorea	Epea
LG 3.2 Zuzendaritzaren erantzukizuna argi esleituta dago	2023/10/31

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.2 A1 Ikasketa-burutzak, ikastetxearen estrategia digitala garatzeko batzordearekin bat etorritik, iral	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKT figura ordu kredituetan zehaztu.	Ordu kredituak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua

Helburua
Eskolako digitalizazio arduraduna eta IKT mentorearekin lankidetzat estua bideratzea.

Deskriptorea	Epea
LG 3.2 Zuzendaritzaren erantzukizuna argi esleituta dago	23/24

Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.2 A1 Ikasketa-burutzak, ikastetxearen estrategia digitala garatzeko batzordearekin bat etorritik, iral	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Mentorea eta eskolaren arteko lan bilerak erraztu.	Ordu kredituak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua
Talde gidariko arduradunarekin- BeAekin Plan Digitala aurrera eramateko ordutegian koordinazio saioak sartu.	Ordutegiak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua

Helburua		
Ikasleen ikasgai desberdinetan Konpetentzia digitala garatzen dela bermatzea.		
Deskriptorea	Epea	
LG 2.1 Planifikazioa erraztaileetan oinarritzen da, eta, aldi berean oztopoei heltzen zaie	23/24	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 2.1 A1 Programazioek ikasleen gaitasun digitalaren garapena jasotzen dute, eremuan, arloan edo ik	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasgai guztietan Konpetentzia digitala garatzeko ekintzak antolatu..	Programazioak	Ikasketa burua Irakasleak	2023/10/31	Detektatua

Helburua		
Ikasle-irakasleen datuak (Dokumentazio konfidentziala, Ikasle-irakasleen datubasea) kofidaltasunez erabilteza.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.4 Hezkuntza irekia gizartearekiko inplikazioaren alderdi bat da	23/24	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.4 A1 Ikastetxeak datuak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko protokolo bat du. Protokolo	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikasleen datu pertsonalak eta akademikoak konfideltasunez erabili.	Datu pertsonalak-akdemikoak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua
Ikasleen datuekin sortutako datubasea idazkaritzatik kudeatu.	Datu pertsonalak-akdemikoak	Zuzendaritza taldea	2023/10/31	Detektatua

Helburua		
Familiekin komunikazio orokorrak mantentzeko TokApp School ezagutzea.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da	2023/10/31	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.1 A3 Ikastetxeak protokolo bat du, hezkuntza-komunitateari komunikaziorako bideak eta uneak e	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
